



FORO DE BARRIO

AUZO-EZTABAIDAGUNEA

2018

ALDE ZAHARRA / CASCO VIEJO

Fecha / Data:	18/03/27
Hora / Ordua:	18:30
Lugar / Kokalekua:	Kondestable Civivoxa (Hitzaldi Aretoa)
Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:	Manuel Millera
Participantes / Parte-hartzaileak:	22 hombres/gizon + 24 mujeres/emakume = 46 personas/pertsona
Otros / Bertze batzuk:	3 personas técnicas de imagen y sonido/ irudiaren eta soinuaren arloko 3 teknikari
Moderadora / Moderatzailea:	Elian Peña (técnico de Participación / Partaidetzako teknikaria) Borja Luque, Sergio Espinosa, Katti Goikoetxea (Serviciod e Dinamización Comunitaria).

Apertura / Hasiera

Elian Peña Herritarren Partaidetzako eta Gizarte Ahalduntzeko teknikariak parte-hartzaileei ongietorria egin zien, eta eskerrak eman zizkien auzo-eztabaidagunera etortzeagatik. Azaldu zuen saioa zuzenean transmititzen ari zela ohiko YouTubeko kanalaren bidez. Halaber, jakinarazi zuen iradokizunak sartzeko kutxa bat zegoela. Jarraian, auzo-eztabaidaguneak deskribatu zituen, eta erran zuen saioak formatu berri bati jarraituko ziola: Lehenbizi, Manuel Millera auzo-zinegotziak azaldu zuen zer proiektu eta ekintza egin ziren auzoan azken hilabeteetan, eta zer jarduketa egitea aurreikusten zuen Udalak. Jarraian, hitza hartu zuen Plazara!-ko ordezkari batek, eta azaldu zuen zer fase zituen parte-hartze prozesuak eta zer egoeratan zegoen. Ondoren, auzoko esperientzia horiei buruzko galdera-txanda bat hasi zen.

Galdera-txanda amaitu ondoren, hiru lantalde eratu ziren, eta 30 minutuz gogoeta egin zuten honako alderdi hauei buruz: Mugikortasuna eta merkataritza, Zaratak eta Turismo-pisuak Lan egiteko denbora amaituta, denen aurrean azaldu zituzten lantaldeetan nabarmendutako ideia nagusiak. Jarraian, mikrofono irekiko 30 minutuko tarte bat utzi zen, bertaratuek beren iritziak adierazteko; Manuel Millerak erantzun zien egindako galdera edo iradokizunei, eta saioa amaitutzat eman zuen.



El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

Hasteko, gogoeta egin zuen herritarren parte-hartzeari buruz, eta hura kudeatzeko moduari buruz. Azaldu zuen soberako parte-hartzeak “errebote” ondorioa izan dezakeela, eta adierazi zuen bideak behar direla herritarren iritzia gauzatzeko. Bertzetik, argitu zuen auzo-eztabaidagunea ez dela organo betearazle bat, bi arrazoiengatik, nagusiki: Aurrekontu-arrazoiengatik (aurrekontua alorka banatzen da, eta ez eremuka edo auzoka), eta udal-erabakiengatik.

Ondoren, gogoeta egin zuen Alde Zaharraren etorkizunari buruz; batez ere bateragarria izango ote den bizitegi-erabilera aisialdi-eskaintzarekin. Alde Zaharrari buruzko datuak eguneratu egin behar direla adierazi zuen, erabilgarri dagoen informazioa 2004koa baita, eta zaharkituta baitago. Ildo horretan, behatoki bat proposatu zuen auzoaren datuak jasotzeko, eta, hala, ikusi ahal izateko zer arazo dauden. Azaldu zuenez, adibidez, pisuen alokairuak % 17 garestitu dira azken 3 urteetan, eta goranzko joerak jarraitzen du; auzoko turismo-okupazioari buruzko datuak ere banakatu zituen.

Bertze alde batetik, auzoko haurrek egindako bi eskaera helarazi zizkien bertaratuei: Alde batetik, eskatu zuten kalea jolasteko eremu gisa berreskuratzeko, eta, bertzetik, eskatu zuten loreak jartzeko auzoan. Bere hitzaldia amaitzeko, hiri-baratzeak goraiatu zituen.

El barrio informa / Auzoak informatzen du

Plazara!-ren parte-hartzea (Peio)

Hasteko, Plazara!-ren ibilbidearen 3 urteen errepassoa egin zuen Peiok. 2016an hasi ziren, hiru fasetan banatutako parte-hartze prozesu baten bidez: I. fasean, erabilerekin eta eremuekin loturiko gaiak landu zituzten; II. fasean, kudeaketa-eredua eztabaidatu zuten erabakitze-jardunaldi batzuen bidez, eta horietatik zirriborro bat atera zen; gaur egun, III. fasean daude, eta horretan, aurreko faseak kontuan hartzen dituzte. Adierazi zuen eztabaidagune bereizi bat dagoela prozesuaren jarraipena egiteko; herritarrek, udalaren zenbait alorretako ordezkariak eta alderdi politiko guztietako ordezkariak osatzen dute. Jarraipen Batzordearen hurrengo saiorako prestatutako dokumentua aurkeztu zuen. Batzordeari dagokionez, urtarrilaren 20an egin zen haren Sorrera Batzarra, eta lehentasunezko zenbait gairi heldu zieten (hala nola giltzak erabiltzeko protokoloa eta haiek nola banatu). Prozesuaren gardentasuna nabarmendu zuen, irekita baitago parte hartu nahi duen edonorentzat. Hala, zenbait dokumentu aurkeztu zituen: “Erabiltzaileek erabiltzeko protokoloa”, “Jardunbide egokien dekalogo”, “Proposamenak hautatzeko eta lehenesteko irizpideak”, “Harrera-protokoloa” eta “Zabalkunde-protokoloa”, besteak beste. Ebaluazioari dagokionez, azpimarratu zuen Plazara!-ren jarduerak bilerak direla, funtsean, baina seguruenik bertzelako jarduketak ere egingo dituztela laster (erakusketak, lankidetzak-prestakuntza, sormen-laborategia...).

Piparrikaren parte-hartzea (Andrea eta Arbu)

Hasteko, aipatu zuten zer jarduera egin zituzten 2017an, eta herritarren parte-hartze mailaren balantze positiboa egin zuten, 30 kolektibok baino gehiagok jo baitzuten Piparrikara. Azaldu zuten Piparrika esparru transbertsal eta belaunaldien artekoa dela, ez duela diru-sarrerarik,



salbu eta itsulapikoen bidez jasotzen dituzten borondatezko dohaintzak, eta proiektu komunitarioa eta inklusiboa dela: baratzearen "aitzakia" erabiltzen dute jende gehiagorengana iristeko eta egoteko beste eremu bat edukitzeko auzoan. Ofizialki, 700 boluntariok laguntzen dute, eta 100 lagunek baino gehiagok parte hartu duten zenbait auzolan egin dute. Gogorarazi zuten eraikitzen ari den eremu bat dela, eta ezdeusetik abiatu zirela, eremua hutsik baitzegoen hasieran. Adierazi zuten nazioarteko bisitak izan dituztela (Frantziatik eta Alemaniatik), eta azaldu zuten heziketa ez-formaleko proiektu bat aurkeztu zutela Erasmus+eko lehiaketa batean, Alemaniarekin batera, eta asmoa zela auzoko jendea joatea Alemaniara, Suitzara, Poloniara eta Portugalera antzeko ekimen komunitario ez-formal batzuk ezagutzera.

Grupos de Trabajo / Lantaldeak

Hiru eremu bereizi eratu ziren aretoan, eta, haietan, honako alderdi hauek landu ziren, 30 minutuz: turismo-pisuak, zarata, eta mugikortasuna, eta merkataritza. Bertaratuak taldetan banandu ziren, nor bere interesen arabera, dinamika hasteko. Lan-formatua bi ataletan banatuta zegoen. Lehenengo atalean, pertsona bakoitzak fitxetan idatzi zituen taldean landutako gaiari buruzko egungo egoera konpontzeko iradokizunak. Bigarren atalean, idatzitako iradokizunak denen aurrean azaldu, eta eztabaidatu zituzten. Jarraian azalduta dago zer lantalde izan ziren eta zer proposamen idatzi zuten bertaratuek, eta, horrekin batera, eztabaidan landutako ideien laburpena ere bai.

3.1 Zarata

Taldea 10 lagunek osatzen zuten; horietatik erdiak gizonezkoak, eta beste erdiak, emakumezkoak.

3.1.1 *Proposamenak*

Honako proposamen hauek egin zituzten lantaldeko partaideek:

- Alde Zaharreko auzotarrak errespetatzea.
- Auzoaren bizitegi-funtzioa lehenestea.
- Ordenantzak betearaztea: Ez da kalean edaten ahal.
- Etxebizitzara iristeko eskubidea.
- Ostalaritza inbaditzaileak ez dezala pribatizatu espazio publikoa.
- Araudia betearaztea nahikoa litzateke, nire ustez.
- Ostatuak behartzea ateari ixtera, eta gauez ordutegiak ez luzatzea, daukatena aski baita.*
- Ordenantzak betetzea.



- Araudia behar bezala betetzea.
- Ordenantzak eta araudiak betetzea.
- Ez ematea lizentzia gehiago ostatu, kafetegi eta terrazetarako.
- Hobeki kontrolatzea besten ondorioz eragiten den zarata.
- Zabalkunde handiagoa ematea zaratari buruzko araudiari.
- Descalzos kaleko 24.ean ezin da atea itxi; pasabidean sartzen dira, eta ezinezkoa da atsedeen hartzea; gainera, zikinkeria handia uzten digute.*
- Honako gai hauei buruzko araudiak betearazi behar ditu udalak:
 - Kanean ez edatea.
 - Ostalaritza inbaditzaileak eragindako kutsadura akustikoa.
 - Edukierak eta ordutegiak kontrolatzea.
 - Kafetegiak ez funtzionatzea ostatu-diskoteka gisa.
 - Ostalariek ez dezatela pribatizatu espazio publikoa.
 - Auzoaren egoitza-funtzioa babestea.
- Ostatuak zarata handiegia ateratzen dute; gauez ezin da atsedeen hartu.
- Egiazko arazoa → araudia. Ordutegi bereziak:
 - Ortzegun gauean 01:00ean ixtea.
 - Ortziral, larunbat eta asteburuetan, 02:00etan ixtea.
 - Ostatu berezietan, zarata 65 dB-ekoa izatea gehienez.
- Araudia interesdunen eskaeretara egokitzea.
- Diru-laguntzak ematea hosgabetzeko.
- Akordioak eremuka: zaratak ukitutakoak eta zarata ateratzen dutenak.
- Zinegotzitzen izenak aldatu ditugu: hiri bizigarria, hiri-ekologia... Bada garaia hitzetatik egintzetara pasatzeko; "aldaketako" ia hiru urte daramatzagu.*



Aire zabaleko ostatuak, dezibelioak topean dituzten kafetegi-diskotekak eta abar kentzea. Hori guztia udalaren esku dago, eta haren borondatearen mende.

3.1.2 Proposamenen laburpena

Aipatu berri ditugun proposamenez gain, beste ideia batzuk atera ziren taldeko eztabaidan. Honela laburbiltzen dira:

Parte-hartzaile gehienek araudiak aipatu zituzten. Batzuek erran zuten aski zela dauden arauak betearaztea; bertze batzuek, berriz, uste zuten zorrotzagoak izan behar dutela, eta zigor gogorragoak ezarri. Horretaz gain, baten batek erran zuen sanferminetan ere aplikatu beharko litzatekeela araudia.

Parte-hartzaile guztiek adierazi zuten zenbakizko datu askok erakusten dutela arazoaren tamaina, eta erakusten dutela, halaber, ematen zaizkion erantzunak ez direla eraginkorrak. Adibidez, parte-hartzaile batek erran zuen 3.000 erreklamazio baino gehiago jarri direla azken urtean.

Aipatu zuten alde handia dagoela hitza ematearen eta benetako aldaketak gauzatu eta araudia betearazteko borondate politikoaren artean.

Guztiak ados zeuden ostatuen erantzukizuna izan behar duela araudiak, ordutegiak, dezibelak eta abar betetzea; eta, haiena ez ezik, gaueko aisialdiaren erabiltzaileena ere bai.

Auzotar baten iritziz, arazoa da gaueko aisialdiko erabiltzaileek gizabiderik eta enpatiarik ez izatea, eta "libertinaje" hitza aipatu zuen. Horri dagokionez, parte-hartzaile batzuek biziki garrantzitsu iritzi zieten heziketari eta sentsibilizazioari. Bertze batzuek gehitu zuten araudia betearazi behar dela, eta horretarako, zaintza handitu.

Araudiari dagokionez, gehienek adierazi zuten berrikusi behar dela, irekitze-lizentzia gehiago ez emateko.

Eremuen kudeaketari dagokionez, aipatu zuten esanbidez debekatuta dagoela lokalen ateak irekita edukitzea.

Bertze alde batetik, zenbaitek erran zuten negoziatziora jo behar dela pertsonen arteko bizikidetzaren onerako. Aukera hori kritikatu zuten bertze batzuek, horretan saiatuak baitziren behin baino gehiagotan.

Erran zuten distortsioa dagoela eremu publikoaren eta pribatuaren artean, eta, hala, zenbaitetan, eremu publikoaren ustiapen pribatua egiten dela. Eta, gainera, egoera batzuetan eremu publikoko jarduerak auzotarren eremu pribatua inbaditzen dute, zarataren bidez.

Azkenik, proposatu zuten ordenantza partizipatibo bat egitea, problematika honetan tartean diren eragile guztiek parte hartuz akordio bat lortzeko.



3.2 Turismo-pisuak

Talde honetan, 3 emakumek eta 7 gizonen hartu zuten parte.

3.2.1 *Proposamenak*

Honako proposamen hauek egin zituzten lantaldeko partaideek:

- Auzora biztanleak erakarriko dituzten dinamikak sustatzea, alokairuko etxebizitzetan zein jabetzako etxebizitzetan.*
- Auzoko aisialdia eta gizarte-ekitaldiak murriztea eta kuantifikatzea (neurritz gorakoak dira).
- Biztanle egonkor aski egonez gero, auzoan bizitza eta saltegiak egongo dira.
- Turismo-pisuak arautzea.
- Legea betetzea, sanferminetan auzotarrak pisuetatik aterarazi ez dituzaten.*
- Gizarteko, komunitateko eta kulturarteko erantzukizuna duten higiezin agentziei pizgarriak ematea.
- Alderatzea zenbait enpresaren turismo-pisuen eskaintza eta gobernuaren erregistroa, eta dagozkien zigorrak ezartzea.*
- Ostalaritza-establezimenduen edukiera kontrolatzea, eta zigorrak ezartzea.
- Terrazen eremuak berreskuratzea.
- Espekulazioa mugatzeko neurriak.
- Araudia aldatzea.
- Bizitegi-etxebizitzak garatzeko eta laguntzeko programak sustatzea.
- Etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea.
- Auzoko taldeekin koordinatzea.
- Higiezin agentzien alternatiba den etxebizitza-sare batean oinarritzea.
- Etxebizitzari buruzko plan bat garatzeko prozesu bat hastea.
- Auzotarrek proiektatutako etxebizitzari buruzko askotariko proiektuei laguntzea.*
- Hutsik dauden etxebizitzak: Pizgarriak ematea haiek erabil daitezen, eta hutsik daudenak salatzea.



- Alde Zaharrean hutsik dauden pisuen errolda egitea.
- Bertze hiri batzuetan dagoen araudia biltzea.
- Alde Zaharra eremu ase izendatzea.
- Turismo-pisuen arteko gutxieneko distantzia ezartzea.
- Ez legeztatzea legez kanpoko turismo-pisuak; berriz izan daitezela bizitegitarakoak.
- Hutsik dauden etxebizitzetarako irteerak: bizitegi, tutoretzapeko etxebizitza edo gazteentzako alokairuko etxe bihurtzea.*
- Erkidego bakoitzak erabaki dezala onartzen duenetz turismo-pisuak jartzea.*
- Turismo-pisuak seinalatzea.

3.2.2. Proposamenen laburpena

Dinamikarako tartea hastean, auzotar batek testuinguruaren berri eman zuen, eta aurreko astean egindako bileraren berri eman zuen: bilera hartan, Alde Zaharrari eragiten dioten hirigintza-aldaketarako proposamenak jaso ziren. Haren bidez, saiatuko dira araudi berriarekin turismo-pisuak murrizten eta haien arteko gutxieneko distantzia bat ezartzen, eta Donejakue Bideko Aterpeak ere barne hartzen. Erran zuen, halaber, apirilaren 16an izango dela auzotarrek eztabaidatzeko prozesuko bigarren bilera.

Hala, eztabaidarako-esparru bat sortzeko beren iritziak ematen hasi ziren parte-hartzaileak; honako alderdi hauek ondorioztatu ziren handik:

- Aipatu zuten auzoan bizi diren hainbat lagunek (anitzek) azkenean alde egiten dutela zarataren eta eragozpenen ondorioz, eta pisu horiek hutsik geratzen direla, eta, gero, turismo-pisu gisa eskaintzen direla. Horren ondorioz, bizitegi-erabilerako pisuen prezioak igotzen dira.
- Egia da turismo-pisuak araututa daudela, baina egia da, halaber, ez dela betetzen araudia. Erran zuten zailtasunak daudela zigor-araudia aplikatzeko.
- Interesgarri eta beharrezko iritzi zioten auzoko elkarteak eta kolektiboak koordinatzeari, bizitegi-pisuen zein turismo-pisuen inguruan.
- Mota anitzeko baterako babesa eta garapena (etxebizitza komunalak, adibidez).
- Adierazi zuten agian egin beharko litzatekeela “turismo-pisuei buruzko eztabaidagune” bat. Auzoan turista bat dago 4 edo 5 biztanleko, eta hori neurritz gorakoa da. Erran zuten ezen anitzek uste dutela auzo bati bizitza ematea dela hotelak sustatzea, terrazak gaitzea, aisialdi-eskaintza handitzea... baina egiatan *bizia ematea* dela jendeari aukera ematea auzoan bizitzen geratzeko.



- Adierazi zuten nabaritzen zutela auzoaren eredia aldatzen ari dela (turismoa eta besta), eta hori konpondu behar dela.
- Hutsik dauden eta udalarenak diren pisuak eta etxebizitzak merkaturatzea.
- Pisuen bizitegi-erabilera sustatzen duten dinamikei pizgarriak ematea, baita auzoa bizitegi-erabilerarako sustatzen duten higiezin agentziei ere.
- Auzorako biztanleria egonkorra bilatzea.
- Partaidetzarako benetako esparru bat eratzea.
- Proposatu zen legez kanpoko turismo-pisuak bizitegi bihurtzea berriz.
- Ostatu-establezimendu turistikoen arteko distantzia arautzea (hotelak, pentsioak, pisuak eta abar).
- Kezkagarri iruditu zitzairen merkataritzako azalera handiak ireki ditzaten sustatzea saltegi txikien kaltetan.

3.3 Mugikortasuna eta merkataritza

3.3.1 *Proposamenak*

Honako proposamen hauek egin zituzten lantaldeko partaideek:

- Hutsik dauden etxabeei udal-zerga bat jartzea (hala, alokairuak merkatuko lirateke).
- Santo Domingoko aparkalekua auzotarrentzat bakarrik izatea. Kiroldegi gehiago.
- Oren plazako aparkalekua (kanpoko) auzotarrentzat eta txandakakoa izatea.
- Alde Zaharra biziberritzen duen oro sustatzea.
- Aparkalekua jartzea Baratzeetan.
- Altuerako aparkalekua jartzea Arrotxapean.
- Alde Zaharraren kanpoaldean auzotarrentzako txandakako aparkalekuak jartzea.
- Alde Zaharreko merkataritza sustatzeko plan espezifikoa eta premiazko bat egitea.
- Aita Moret irekitzea.
- Alde Zaharretik gertuagoko geralekuak.
- Saltegi txikiak sustatzeko kanpaina.

3.3.2 *Proposamenen laburpena*

Parte-hartzaileek eztabaida hasi zuten beren iritziak emanez, eta honako adostasun hauek atera ziren:

- Auzotarrek, saltegiek eta ostalaritzak elkarren beharra dute, denak batera. Udalak Alde Zaharrerako neurriak arautu behar ditu.
- Informazio handiagoa behar da azaltzeko nola iritsi Alde Zaharrera bizikletaz, villavesetan...
- Lur gaineko aparkaleku gehiago behar dira.

Jarraian, parte-hartzaileek beren iritziak eman zituzten eztabaidatzeko esparru bat sortzeko; eta honako proposamen hauek atera ziren taldean:

- Autoen abiadura handia kontrolatzea (bereziki Kale Berrian).
- Arreta berezia jartzea adingabeen segurtasuna bermatzeko Alde Zaharreko kaleetan.
- Soberako trafikoa murriztea zenbait kaletan (Kale Nagusian).
- Bizikleten erabilera egokitzea, eta bizikletak erabil daitezten sustatzea (horretarako behar diren bitartekoak jarriz).
- Merkataritza zaintzea: etxabeak oso garestiak dira.
- Saltegi txikiak sustatzeko kanpaina.
- Villavesak auzora hurbiltzea.
- Plazak merkeago jartzea dauden aparkalekuetan.
- Aita Moret kalea irekitzea.
- Aparkalekua eta Alde Zaharra lotzeko autobusak jartzea.

Ei Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du

Taldekako lan bateratua amaitu eta denen aurrean azaldu ondoren, "mikrofono irekia" izeneko atala hasi zen; hartan, herritarrek auzoari buruzko zenbait kexa eta proposamen egin zizkioten zinegotziari.

Lehenbizi, saltzailea den Alde Zaharreko bizilagun batek hartu zuen hitza. Adierazi zuen minduta zegoela auzoan legea betetzen ez delako. Erran zuenez, ez zuen inolako obsesiorik



araudiarekin, baina eskertuko luke gatazkarik egonez gero % 20an gutxienez aplikatzea, eta, hala, arau-haustek murriz daitezzen lortzea. Erran zuen ez zela lege bat ere betetzen. Alde Zaharrean jende asko bizi da, eta zenbaitetan hori ahazten da, eta hiri osoaren aisialdi-zentroa bihurtzen da.

Ekarpen horren ondoren, bertze auzotar batek hartu zuen hitza. Azaldu zuen arestian hitzarmen bat egin zela Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean langileak kontratatzeke San Frantzisko plazako liburutegiako, eta adierazi zuen minduta zegoela egiaztatzean horietako bakar bat ere ez dela euskalduna. Administrazioei ahalegina egiteko eskatu zien, bi hizkuntzak ezarri ahal izateko.

Ondoren, bertze auzotar batek bere ideia bat azaldu zuen: auzotar-erkidegoek eskumena izan behar dute erabakitzeke turismo-pisu bat nahi duten edo ez beren etxebizitza-blokean. Erran zuen, halaber, elkarrekin oso loturik zeudela eztabaidagunean landu ziren hiru ardatzak. Udalak banatutako eskuorri batean, lelo hau irakur zitekeen: “Zatoz zaharrera”. Auzotarrak azaldu zuen minduta zegoela horrelako mezuekin, horiekin *Alde Zaharra “erretzen” ari baitira*.

Txandarekin jarraituz, bertze auzotar batek hartu zuen hitza, eta azaldu zuen aurreko hilean paper batzuk banatzen aritu zela San Frantziskoko liburutegiaren atean, salatzeko ez zegoela ados haren ordutegiarekin, ez baita irekitzen larunbatetan. 156 lagunek utzi zuten liburutegiaren salmahaiian ordutegia aldatzeko eskaera. Erran zuenez, ez zioten eman, ez erantzunik, ez konponbiderik, eta konpondu beharrekoa da. Horretaz gain, txanda aprobetxatu zuen langileek euskaraz erantzuteke eskaeraren alde egiteko.

Azkenik, auzotar batek hitza hartu, eta adierazi zuen minduta zegoela gaueko aisialdia zela eta. Erran zuen *oso polita geratzen dela “auzoa atsegin bihurtzearen” kontua, baina “auzoa gaueko bihurtzea” dela auzoko bizilagunek bizi dutena. Polizia ez da etortzen istiluak daudenean, borrokak daudenean, atak lehertzen dituztenean... Hori guztia gizabide-arazoa da, baina hezkuntza aldeko konponbiderik ez dagoenez, araudiak du erantzukizuna, eta ez da aplikatzen*. Adierazi zuen udaltzainekin kontaktuan jarri zela, eta erantzun ziotela haiek “ez direla denera iristen”.

HOBEKUNTZA-PROPOSAMENETARAKO KUTXA

Aretoko sarreran jarritako kutxan, honako hobekuntza-proposamen hauek jaso ziren:

- Alde Zaharreko behatoki bat eratzea, langile kualifikatuekin, zenbait alderdi diagnostikatzeko eta neurtzeko: mugikortasuna, turismo-pisuak, langabezia-tasa...
- Dagoen araudia aplikatzea; adibidez: “Debekatuta dago edariak ateratzea baimendutako guneetatik” (2002tik indarrean dago araua).
- Alde Zaharra zarataz, eta ostalaritza- eta turismo-establezimenduz asetako gunea da. Sen on pixka bat.
- “Ostatu” berezietarako araudiak aldatzea.
- Gaueko ordutegiak murriztea.
- Soinua: Gehienez 65 dB; eta, kanpoan, 0 dB.



- Gauetz kalean edatea: Eremu irekietan soilik, eta 20 m baino gutxiago zabal diren kaleetan debekatzea.
- Erraztea, bai! Inbaditzea, ez! Mesedez, Aranzadiko zinegotziek erantzukizunez har dezatela beren kargua, eta udalaren parte gisa joka dezatela. Kezkatzen gaitu haiek “komunitatearen kapela” jantzi, eta beren kargua erabiltzeak berenak ez diren ekimenez solastatzeko; horrek arazoak bertzerik ez digu ekartzen gure ekimen komunitarioak mantentzeko.

Cierre / Amaiera

Eztabaidagunea amaitzeko, Manuel Millera auzo-zinegotziak hartu zuen azken txanda. Adierazi zuen berak ez zuela autoritaterik aurkeztutako iradokizun guztiei konponbidea emateko; baina konpromisoa hartu zuen eskaera guztiak aztertzeko eta begiratzeko. Jakinarazi zuen aurreikusita dagoela komunitate-poliziaren figura ezartzea, Alde Zaharrean zein Arrosadian. Halaber, konpromisoa hartu zuen udaltzaingoarekin bitartekari aritzeko, eta ikusteko zer egiten ahal den. Horretaz gain, kezka agertu zuen hirian zabaltzen ari den mezuaren aurrean: *auzo batek ostatu gehiago badu bizitza handiagoa duelako mezua, hain zuzen; izan ere, kale batean terraza bat egoteak esan nahi du haurrak ezin direla han jolastu.*

Azkenik, adierazi zuen ados zegoela liburutegien ordutegien kontuarekin, eta, areago, kiroldegi eta kirol-instalazioei ere helaraziko ziela. Erran zuen konpromisoa hartzen duela bitartekaritza egiteko eta ikusteko zer aukera dauden. Eta, amaitzeko, eskerrak eman zizkien herritarrei eztabaidagunean parte hartzeagatik.